

Ugalde'tar Martin

Uzturre

Tierra Vasca, 58. zk., 1961-04: 6.

Biotz-begiak malkotan jarri dizkit irakurtzea egin detan liburu batek; liburua "Itzalleak"; bere egillea Ugalde'tar Martin.

Bi itz dakarz liburuak Ibikagabeitia'tar Andima gure lagunarenak: "mendeak mende, Venezuela'n argitaratu dan lenengo euskerazko liburua". Eta lentxeago Andima'k berak: "Bearrezkoa genuen euskotarrok ere gudu-literatura gartsu bat, eta literatura orri asiera ezin obeagoa ematen dio Martin Ugalde'k bere ipui auekin".

Bost ipui bai ditu liburu onek. Zearo nastu naute. Gure erriaren edesti aro bat jartzen digute begien aurrean; ogeitabost urtez atzetiko aro ikaragarri ura... Guda, guda ondorenak, gure erriaren ondamendia, sakabanatze gorri au...

Martin Ugalde'n liburua urruti iritxiko da; jendearen biotzera alegia; gure erriaren biotzera. Makiñabat euskaldun astindu bear dizu mundu zabalean; sortu bear du prankorengan dardara gure erri bazterrean.

Neri beñepein biotz-begiak malkotan jarri dizkit. Ez da arritzako. "Itzalleak" irakurriz eta ikusiko dezu geiegikeritan ari ote natzaizun edo ez.

Bide-ederra erakutsi du Martin Ugalde'k. Guda-literaturari euskeraz eman dio asiera eta nolainai bide-urratzalletza egin digu: euskeraz ez baizun oraindik iñork argitaratu orrelako libururik.

Liburu au ez da utsean geratuko: gure erriarekin ezur da mami egingo du. Seguru naiz. Etxerik etxe ibilliko da ixilka gorrian gurean, eskuz esku; pranko sugar sertu bear dizu.

Beste gauza bat. Ez dio oraindik iñork egin gure Lendakari zanari orrelako eskeintzarik. "Agirre Lendakari bikañari" eskeñi bai dio Martin Ugalde'k bere liburutxo. Kosta bear zaio nornairi eskeintza mardulagorik egitea...

Esker onez ari zaio noski Lendakari zana irriparka beste mundutik Ugalde'ri. Bai ote daki iñork gure Lendakari zanak bezela esker ona zaltzen? Ontan ere aparta baizan...

Zein ederragoak dira bost ipui oriek. "Gizerailtza" erreietaraño sartzen zaizu-begien aurrean jarri dit Ugalde'k Tolosa'ko kanposantu atzetiko sagasti ura eta neronek ere andixek sumatu dizut Ugalde'n eskutik Nemexio gizarajoa. "Xabale'nazia" k astindu bear dizu amaikatxo ezezik amabi irakurle...

"Bañan, Xabale; uste al dezute ill dala?"

Mutil uxoa zan Xabale. Gutxi bezelakoa. Kartzeletan ezagutu genizunak arrunt maite genun. Tranbe batri bota zion Donosti'n bere burua Bergara'tik Donosti'ko polizikuartelera zeramaikitelarik. Xabale maite ura... Bildur zizun gizarajoak: zartakoaren zartakoz, gorputza matxukatuz, lagunuen baten kontrako itzik aterako ote zioten bildur... Bañan uste al dezute Xabale ill dala? Bere azia or dago gure errian...

Martin Ugalde'ri zorionak. Naiz erderaz naiz euskeraz estilo berezia dizu. Nai dizun ura esaten dakin mutilla degu andoaindarra. Ez du nornaik ori egiten. Ez dedilla azkenekoa izan euskerazko liburu au. Pena izango litzake Martin Ugalde ontan geratzea.